



GAZTEEN EUSKAL
BEHATOKIA

GEBren dokumentazio zentroko 2021eko abenduko artikulua nabarmenak



ÁGUILA OTERO, A., 2020. [Evaluación del perfil y necesidades de adolescentes en acogimiento residencial terapéutico](#). Universidad de Oviedo

Tesi honen helburua da egoitza-harrera terapeutikoko (EHT) etxeetan artatutako nerabeen profila eta beharrak aztertzea, baita gazteen ikuspegitik baliabideen funtzionamendua nolakoa den ere. Lan honek haurren eta gazteen osasun mentaleko arazoaren prebentzioak eta detekzio goiztiarrak haurren babes-sistemaren barruan duen garrantzia nabarmentzen du. Horretarako, babesteko gertuko neurrien edo hain murriztaileak ez diren neurrien laguntza espezializatuaren beharra azpimarratzen du, behin eta berriz gerta daitezkeen hausturak eta familia-aldaketak saihesteko. Ezinbestekoa da kasuak behar bezala ebaluatzea eta oso espezializatuta dauden etxe horietara bideratzea. Ildo beretik, gomendagarria da EHTrako garatutako ebidentzian oinarritutako programak abiaraztea, bai eta aldiari behin kalitate-ebaluazioak egitea ere, etxeko funtzionamendua profesional eta gazte egoiliarren ikuspegitik aztertzea ahalbidetzen baitute. Azkenik, nesken taldearen kalteberatasuna dela eta, funtsezkoa da babes-sistemaren barruan genero-ikuspegia ezartzea, haien ezaugarri eta behar berezietan behar bezala erantzuteko.



LEAL-JIMÉNEZ, A., 2020. [Neurocomunicación digital como herramienta de sensibilización para prevención de suicidios en la población joven](#). Universidad de Málaga

Ikerketa honen bidez, suizidioak gazteen artean duen irismena zehaztu eta ulertu nahi da, eta ezagutarazi nahi da Adimen Artifiziala (AA) eta Neurokomunikazioa (sare sozialetan komunikazio eta harreman publikoko eduki egokiak dituen) zenbateraino aplikatu litezkeen, neurri handi batean, suizidio saiakera potentzialak arintzen laguntzeko. Lortutako emaitzek adierazten digute gai nagusitzat suizidioaren prebentzioa duten kontzientziazio-kanpainak egin behar direla, Neurokomunikazio Digitaleko teknikak erabiliz. Kanpaina horien eraginkortasuna ebaluatu behar litzateke, gerora, jarraitutasun-ekintzak egin ahal izateko. Halaber, komunikabideekin (informatzaile arduradun gisa) suizidioetan ardura duen estaldurari buruzko elkarrizketa ezartzeko beharra ikusten da. Guztiek parte har dezaten eta informazio arduratsuaren inguruan gaitu daitezkeen bultzatu behar da, horretarako, hizkuntzaren erabilera egokia bermatuko duten arauak eta praktikak formulatuz.



PÉREZ ESCODA, A., BARÓN DULCE, G. y RUBIO ROMERO, J., 2021. [Mapeo del consumo de medios en los jóvenes: Redes sociales, 'fake news' y confianza en tiempos de pandemia](#). Index.comunicación: Revista científica en el ámbito de la Comunicación Aplicada, vol. 11, no. 2, pp. 187-208. ISSN 2174-1859

COVID-19ak eragindako pandemiaren leherketak eraldaketa handia ekarri du komunikabideen kontsumoan eta sare sozialen erabileran. Ohitura berriek, konektatutako gailuekiko esposizio luzeek, eta informazio kopuru zenbazezinek ohartarazten dute errealitate kezkarri batez, bereziki gazteen artekoaz. Ikerketa honen helburua Z belaunaldiak komunikabideekiko duen konfiantza-maila, sareetako kontsumo-lehentasanak, eta komunikabideen kontsumoaren eta *fake news* en artean egiten duten lotura ezagutzeta da. Azterlanak hiru dimentsio jorratzen ditu: komunikabideen kontsumoa, sare sozialen kontsumoa eta *fake news* ekiko pertzepzioa. Emaitzen arabera, belaunaldi horrek fidagaitz zaizkion komunikabideak intentsiboki kontsumitzen ditu, eta gutxien kontsumitzen dituen komunikabideetaz fidatzen da. Ondorioen arabera, sareak dira belaunaldi horretako informazioaren eta beste eduki batzuen kontsumo-iturri nagusia, nahiz eta, haien pertzepzioen arabera, iturri fidagaitzena eta *fake news* ak zabaltzeko joera handiena duena izan. Agerikoa da medioen inguruko alfabetizazioaren beharra, ikuspegi kritikoa (ez horren hezigarria) izango duena.